

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

WAMU proiektua aurrera eramateko, bazkide eta hornitzaile estrategikoak izatea ezinbestekoa da. Proiektua arrakasta eta eraginkortasuna bermatzeko loturak sendoak eraiki beharko dira, eta horiek beharrezko laguntza proposatutako digute proiektua aurrera eramateko eta sare bat eraikitzeko.

Gure kasuan, WAMU proiektua funtzionamenduarako funtsezko bazkide eta hornitzaileak elkartek eta erakundeak izango dira, integrazioa eta irisgarritasuna sustatuko dutenak, mundu inklusiboago baten ikuspegia partekatuz. Gure bazkide garrantzitsuak, honako hauek izango dira:

Autismo Araba (Arabako Autismo Elkartea)

Erakunde honek Autismo Espektroko Nahasmendua (TEA) duten gizabanakoen eta haien familien bizi-maila hobetzeko konpromisoa hartzen du. Babesa ematen diete funtsezko alderdiei, hala nola sozializazioari, komunikazioari eta hezkuntzari. Lankidetzaz hori funtsezkoa izango da komunikazio-bitartekotzako estrategia pertsonalizatuak sortzeko TEA duten gizabanakoentzat, haien hezkuntza- eta gizarte-eskakizunak beteko dituen ikuspegi integratu batekin.

Asociacion Autismo Araba. (2024, 10 junio). *Autismo. Araba Elkartea*.
<https://autismoaraba.org/>



Euskal Gorrak (Pertsona gorren elkarteen euskal federazioa)

Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko pertsona gorren hainbat elkarte biltzen dituen erakundea da. Helburua pertsona gorren eskubideak babestea, Zeinu Hizkuntza sustatzea eta komunikazio-oztopoak ezabatzea da.

Ttak. (s. f.). *Euskal gorrak*. <https://euskal-gorrak.org/>



ASOCIDE (Euskadiko Gor-itsuen elkarte)

ASOCIDE Euskadi, familiekin batera, gor-itsutasuna duten pertsonen sustapenean eta arretan aritzen da. Bere helburu nagusia Euskadiko desgaitasun intelektuala eta garapen urritasuna duten pertsonen eta haien familien eskubideak defendatzea eta sustatzea da.

ASOCIDE EUSKADI. (s. f.). <https://www.asocide-euskadi.org/>



TEL EUSKADI (Hizkuntza Nahaste Espezifikoak duten Haurren Familien Euskadiko Elkartearen bloga)

TEL Euskadi, TELari buruzko hedapenean oinarritzen da, baliabideen eta jardueren bidez, eta hitzaldiak eta ekitaldiak komunitatean eginez bitartez. Gainera, tailerrak antolatzen dituzte TEL duten pertsonekin, senideekin eta hezitzaileekin.



TEL Euskadi. (s. f.-b). <https://tel-euskadi.blogspot.com/>

Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Proiektu guztietan bazkide eta hornitzaile estrategikoak izatea ezinbesteko elementuak dira iraunkortasuna eta arrakasta lortzeko.

Lehenik eta behin, gure aliatuek eta hornitzaileek guk geuk lortu ezingo genituzkeen **laguntza espezializatua eta esperientzia eskaintzea** da puntu aipagarrienetako bat. Erakundeek elkar ulertze zabala eskaintzen digute hainbat arlotan; sozializazioan, komunikazioan eta inklusioan, adibidez, Autismo Araba bezalako erakundea. Bizipen horrek estrategiak lantzea errazten digu, talde horren eskaera partikularretara egokitzen diren heinean. Horrez gain, funtsezkoa da eskaintzen ditugun baliabide eta zerbitzuak inklusiboak eta denon eskura egongo direla ziurtatzeko.

Bigarrenik, **inklusioa eta irisgarritasunerako sarbidea** sustatzeagatik. Gure proiektua pertsona guztientzako espazio inklusibo bat sortzeaz arduratzen da, bakoitzaren trebetasunak alde batera utzita, integrazio soziala bermatuz. Horregatik, Euskal Gorrak eta ASOCIDE bezalako bazkideak funtsezkoak dira testuinguru honetan, aktiboki ahalegintzen dira pertsona gorren eta entzumen-desgaitasuna dutenen eskubideak babesten, baita eta adimen eta garapen desgaitasuna duten pertsonenak ere. Ezinbestekoa da erakunde horien babesa aukera-berdintasuna sustatzen duen baliabide-sarea ezartzeko.

Baita ere, oso garrantzitsua da, **laguntza-sare bat ezartzea** eta gure gaitasunak indartzen dituzten baliabide komunak eskaintzea. Gurekin lankidetzan ari den erakunde bakoitzak bere baliabideak eskeindu ahal digute. Horren adibide da TEL Euskadiko elkarte, senideei, hezitzaileei eta kaltetuei bizipenak trukatzeko eta integrazioa sustatuko duten estrategiak eskuratzea ahalbidetzen dieten ekitaldiak antolatzen dituenak. Lankidetzan aritzeak eta sare sendo bat ezartzeak, gure proiektua indartzeaz gain, egiten dugunaren oihartzuna areagotzen du.

Azkenik, gure aliatu eta hornitzaileekiko konexioa ere ezinbestekoa da proiektuaren epe luzerako **iraunkortasuna bermatzeko**. Erakunde horiek lotura iraunkorra dute

onura jasotzen duten komunitateekin, eta ziurtatzen dute WAMU proiektuaren eragina iragankorra ez dela izango, baizik eta iraun egingo duela.